

noaua

**Milaka lagun
batu ziren GuraSOSen
manifestazioan**

**Zuberoako ikastolen
aldeko kanpaina,
azken txanpan**

**Euskararen Eguna
ospatzeko hainbat
deialdi egin dira**



**2017ko maiatzaren 7an egingo da
herri galdeketa Usurbilen**



GARAGARDO ARTISAUA EGITEKO IKASTAROA

ALKARTASUNA
KOOPERATIBAN

NOIZ: ABENDUAK 17, LARUNBATA 09:00-13:00 PREZIOA: 25€, BAZKIDEEK DOAN
IZEN EMATEA: 943361114 alkartasuna@usurbil.com edo www.alkartasuna.eus

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

2 etxebizitza gelditzen dira!

AZKEN 2
ETXEBIZITZAK!

12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi_n

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia

E.: contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Albisteak iruditan

Erle Eguna, eztingileen topagune

Eguraldi atseginak eraginda, jende asko hurbildu zen 18. Erle Eguna-ra. Lehiaketak oihartzun handia du eztingintza sektorean eta horren lekuko da sarituen jatorria. Euskal Herriko txoko ezberdinetako ekoizleak aurkeztu ziren. Hauek izan dira epaimahaiaren esanetan, aurtengo lehiaketako ezirik onenak.

Mila lore ezti lehiaketa:

1. Ramon Lopetegi (Belauntza).
2. Aitor Barandiaran (Andoain).

Ezti iluna lehiaketa:

1. Beñat Elorza (Zerain).
2. Mikel Berastegi (Arbizu).

Ezti argia lehiaketa:

1. Patxi Franko (Andoain).
2. Agustin Zabala (Hernani).



Argazkian, ezti lehiaketako sarituak eta epaimahaikideetako batzuk.

Gozogintzako lehiaketa:

1. Kandi Tolosa
 2. Patxi Franko.
- Marrazki lehiaketa ere egin zen. Hauek

izan ziren sarituak: Paul Olano, Unax Lopez, Malen Astiazaran, Lina Blidi, Idoia Gainza, Iñigo Martin, Aritz Urkijo, Enara Larrañaga, Irati Dedruello.

Laburrean

Usurbil Kirol Elkartearen errifa zozketa

Usurbil Kirol Elkartek larunbatean egin zuen errifa zozketako zenbakia saritua, 6.995 izan zen.

Bruño etxeko mariskada ederra tokatu zaio sarituari.

Sortu birfundatzeko batzarra

Larunbat honetan, abenduak 3, goizeko 10:00etan Potxoenean. Emendakin partzialak eta zerrenda irekien hautagaiei buruz jardungo dute. Informazio gehiago: partehartu.sortu.eus

Hurrengo NOAUA!, abenduaren 16an

Jai egunak tarteko, datorren astean ez da NOAUA!rik izango. Zorion agur edo oharrik baldin baduzue, erredakzioa@noaua.eus helbidera bidali. Abenduaren 12ko goizeko 11:00ak arteko epea dago.

noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaua.eus // www.noaua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa:

Olatz Rezola, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrerria!



Maialen Unanue

Gure herria geurea bada

Ez. Horixe izan zen lankideak Joseba Sarrionandiaren argazkia ireki zuenean esan nuena. “Ez, ez, ez. Hori ez da Sarri”. Eserita ageri zen, eskaile-ra batzuetan, albora begira. Argazki gehiago jaso genituenez, hurrengo ireki zuen lankideak. Hura bai, hura Sarri zen. Planoa hurbilago hartuta zegoen, eta irribarrez ari zen. Orduan ikusi genuen Sarri: begi horiek, sudurra, keinua. Hura bazen 1985eko argazki mitikoaren segida logikoa, zuri beltzetik 31 urte pasa osteko Sarri.

Iurretako idazlea ezagutu nuenetik pasatu dira urte batzuk. “Magikoa”. Horixe izan zen haren poemak lehenengoz irakurri nituenean esan nuena. Iritzi berekoa zen Atabala eta euria oparitu zidan laguna. Haren idazkerak badu zerbait miresme-

na sortzen didana. Eta haren lanak irakurtzea beti izan da berezia, sarean harrapatu nau beti. Azken batean, mito handi bat izan baita Sarri. Argazkiak jaso genituen egun horretan behin baino gehiagotan begiratu nien argazki haiei, azkenean sinestu nuen arte hura zela benetan; hezur haragizko pertsona arrunt bat.

Jende askorentzat ez zen sorpresa izan albistea. Antza, euskal herritarren hiru laurden egonak dira Sarrirekin inoiz, Kuban bertan. Argia aldizkari-ko Beranduegikoek, ohiko ironia horrekin, bota zuten Sarri non zegoen bazekitenek herri bazkaria antolatu zutela BEC-en; hasieran pentsatu nuen, “ezin du hainbesterako izan”. Baina gero, bati baino gehiagori entzun izan diot egona zela harekin; are, batek urtezahar gaua harekin pasea zuela ere esan zuen.

Sinesgaitzena, ziurrenik, zera da: hainbeste jendek bisitatu badu, eta bakoitzak bere argazkia atera badu momentu hura betikotzeko, nola ez den lehenago jakin non gordeta zegoen Sarri. Nola inork ez duen inoiz inon halakorik argitaratu. Batik bat, posearen garaiotan. Baina bejondeiela. Non zegoen jakinaraztea ez zegokion inori, ez bada Sarri.

Ezin ukatu, ordea, kontu honek guztiak baduela zerbait xelebrea. Errespetu guztiarekin, erarik tontoenean jakin baikenuen non zegoen. Edo, bestela esateko, erarik tontoenean lortu genuen haren kokalekuaren berri emateko baimena. Prentsa ohar arrunt baten bidez. Etxepare Institutuak irakurletza abiatuko zuela Habanan. Kulturako lankide batek begiak zabal-zabalik izan zituen ustez interes gutxikoa izan zitekeen pren-

tsa ohar hori irakurri ahala. Irakaslea Sarri izango zela barruan baitzetoarren, nabarmen iragarri gabe, hainbeste urtean gordetako sekretu hori hainbesterako ez balitz bezala. Egun batzuk geroago, hari egindako elkarriketa eta argazkiak iritsi zirenean ere sentsazioa hori izan zen. Misterio handirik gabe zioen “han eta hemen” ibili zela. Natural-natural. Hemendik haren jakin-minez ginenok horretarako arrazoirik izango ez bagenu bezala.

Habanan bada ere, ongie-torria izan dadila Sarri. Munduko hiritarra izatea hain modan dagoen honetan, “Harriak eta herriak” poemarekin gelditzen naiz ni. “Munduan bada bazter bat, (ez genuen guk sortu orduko hautatu); gure herria irizten duguna. Eta mundu guztia da gurea, gure herria geurea bada (...)”.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | **Maialen Unanue** | Luis Aranalde | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai

Joseba Larratzxeren komikia



Abenduaren 17an, Jostailu Erabilien Azoka

Erabiltzen ez duzuen jolas edo jostailurik izango duzue etxean. Abenduaren 17an, 11:00-13:00 artean frontoian ospatuko den Jostailu Erabilien Azokan izango duzue trukatu eta berrera-biltzeko aukera.

Bezperatan, abenduaren 15ean eta 16an bideratuko du gaion bilketa Hitz Aho Udarregi Ikastolako Guraso Elkarteak, 17:00-19:00 artean Sutegiko erakustaretoan. Urtero moduan, gogoan izan, ekimen honetan parte hartzeko baldintza hauek bete behar dira:

■ Jostailuek osorik egon behar dute. Norberari hartzea gustatuko litzaiokeen moduan.

■ Bilketa egunetan jasotzen dena musu-truk emango da. Horren truke, nahi izanez gero, txartel bat jasoko du bakoitzak azoka egunean beste jostailuren batengatik aldatzeko.



Igande honetan, abenduak 4, Robotak filma Sutegin.

■ Azoka egunean jostailuak trukatzeko, 8 urtetik beherakoek, arduradun batekin parte hartu beharko dute.

■ DVD eta antzekoek jatorrizkoak izan beharko dute.

Igande honetan, "Robotak" haurrentzako filma

Usurbilgo Udalak Ziortza Gazte Elkartearen laguntzaz negu parterako antolatutako duen euskarazko zine zikloaren baitan, "Robotak" filmaz gozatzeko aukera izango da igande honetan, abenduaren 4an 17:00etan

Sutegin. Sarrerak 3 eurotan erosi ahalko dira egunean bertan. "Izotz Aroaren sortzaileen eskutik, hona hemen Robotak, dibertsioz betetako abentura bat, ordenagailuz animatua. Film hau Rodney Latorriren istorioa da. Rodneyk asmatzaile izan nahi luke. Helburu horrekin, Robot Hirirantz abiatu da, bere idoloa dena -Soldatzaile Handia- ezagutzeko. Bidean, era guztietako roboten lagun egingo da, eta haien laguntzarekin aurre egingo dio Ratchet maltzurari".

Herriko ondarea ezagutzeko aukera, abenduaren 8ko bisita gidatua

Irailaz geroztik aldiro, herriko kultur ondareari loturiko bisita gidatuak antolatzen ari da Usurbilgo Udala herritik barrena. "Harria hitz" ekimenaren hurrengo saioa, abenduaren 8rako iragarri dute. Bisita gidatua, eguerdiko 12:00etan abiatuko da frontoitik. "Mendibururen eskultura, Usurbilgo plaza eta Zumetaren murala bisitatuko ditugu, hala sorkuntza-ondarearen arteko harremana aztertuz nola kultura-kontzeptuen hedapena azalduz", aurreratu dute. Interesdun orok, informazio gehiago jaso eta aldeztu aurretik izen emateko, 605 729 802 telefono zenbakira deitu edo info@ereiten.com helbidera idatzi dezake. Gehieenez, 30 laguntzako tokia egongo da.

Ika-Mika

Lasarte-Oriako Udalari erantzuna

Lasarte-Oriako Udalak Atsotabakarren (Urbil merkatalgunearen ondoko Usurbilgo eremuan) entrenamendu zelaia eta atletismo pista eraikitzeko eskaera egin dio Usurbilgo Udalari. Egin nahi duten proiektua aurrera eramateko, Lasarte-Oriako udalaren jabetzakoak diren lurrez gain, Usurbilgo Udalaren lurak ere behar dituzte, 5000 metro karratu, hain zuzen ere. Eskaera horren aurrean, honako ikuspegia du Usurbilgo udaleko gobernu taldeak:

Etorkizuneko Usurbilek nolako oinarri urbanistikoa izan beharko litzuzkeen lantzen ari gara azken hilabeteetan. Ezaguna da Plan Orokorrarekin egiten ari garen lanketa eta orain gutxi Kale Irekiak izeneko prozesua ere. Bertan zehaztuko dugu, ba-

etik, oinezkoen eta bizikleten bideei lehentasunezko tratua emango zaiela, eta, bestetik, herriko ekipamendu publikoen artean mugitu ahal izateko, modu seguru eta jasagarriak sortuko direla.

Azpitarratzekoa da prozesuan ateratako behar nagusi bat N634 zeharkatzeko loturak hobetzeko premia izan dela. Duela gutxi usurbildar baten heriotzaren albiste tristea jaso genuen, hain zuzen ere errepidea gurutzatzen ari zela.

Bestalde, gogorazi behar dugu Diputazioaren Bidegorri Planean eta Sektoreko Lurralde-Planean aurreikusita dagoela Usurbilgo herrigunea eta Lasarte-Oria lotuko dituen bidegorria eraikitzea.

Lasarte-Oriako udalaren es-

kaeraren ostean, Usurbilgo Udala Diputazioako ordezkariekin bildu da, adierazteko premiazkoa dela bidegorri horren proiektua bultzatzea. Usurbilgo Udalak konpromiso bat eskatu du, baina erantzuna izan da Diputazioak ezin duela gai horreko konpromisorik hartu.

Gauzak horrela, Usurbilgo Udaleko gobernu taldeak hurrengo adierazi nahi du:

1. Lasarte-Oriako udalak jabetzan dituen lurretan kirol-ekipamenduari dagokion prozedura urbanistikoa bidera daiteke, betiere prozedura horrek eskatzen dituen formak eta arauak betetzen diren bitartean.
2. Usurbilgo Udalaren jabetzako lur-saila ekipamendu horretarako uzteko eskaerari dagokionez, derrigorrezko baldintza

iruditzen zaigu bertara joateko oinezkoen eta bizikleten iragarritasuna bermatzea. Hori horrela ez denez, arduragabekeria handia litzateke gure aldetik kirol-gune bat sustatzea Usurbilgo herrigunetik bertara iristeko modu seguru bakarra ibilgailu motordunen bidez denean. Hortaz, udal honek ezin dio baiezkorik eman lagapen horri.

3. Horrelako kirol-azpiegituren garapenak aukera egokia eskaintzen du, lankidetzat instituzionala praktikara eramanez, denontzat onuragarriak diren ekipamenduak eraikitzeko, jasagarritasunaren eta oreka urbanistikoa printzipioei eutsiz. Aukera hori hor dago, eta Usurbilgo Udala prestutasun osoa du oraindik ere horretan inplikatzeko.

Usurbilgo Udala

Aginagako ludoteka, antzoki eta dantzaleku

Antxomolantxa Elkartek eta Aginagako Eskola Txikiko Guraso Elkar-teak zenbait ekitaldi antolatu dute datorren zubi aste luzerako:

Abenduak 2, ostirala

■ 18:30 MartxanGo Dantza, Aginagako ludotekan. “MartxanGO taldeak jendea mugitzera bultzatu nahi du. Festaren parte sentiarazi dantzaren bidez. Jendea martxan jarri “martxa” jarritz. Gorputza mugi araztera animatzen duen dantzari bat daukagu taldean: Agurtzane. Estilo ezberdinetako abestiak jotzen ditugun bitartean Agurtzanek ze pausu eman behar diren esaten die parte-hartzaileei oholtaza gainetik edo plazara jaitsita. Aerobik estiloko pausuetatik hasi eta euskal dantzetaraino joan gintezke. Talde ezagunen abestiak, betiko euskal kantak erritmo ezberdinekin nahasiz. Fandango, arin-arin, mexikana,... dena jendea dantzara animatze aldera”.

■ 22:00 “Irri par tsou” Aginagako ludotekan. “2 lagun eskenatoki gaineen. Baina lagun, “pertsona” edo “tipo” adierarakin. Eta zer gerta daiteke biak lan bera egiteko kontratatu dituztela konturatzaren direnean? Ba sesiotan amaitu dezaketela baina “sesio” ez “emanaldi” zentzuan baizik eta “haserre” esanahiarekin. Irriparitsu egon beharrean, irri par tsou paregabe bihurtu daiteke saio, sesio... “Paregabea” zentzu literalean, “par” edo “bikote” formatuan hasi dena, bakarrik-



Ostiral honetan, 18:30ean, MartxanGo-rekin dantzaldia Aginagako ludotekan.

GABONETAKO TXOKOAK

Abenduaren 26tik 30era eta urtarrilaren 2tik 5era, Aginagako Eskola Txikiko Guraso Elkartearen eskutik

keta moduan amaituko baita, hala ez... Bien artean ez dute gai bat jorratu gabe utziko; ikastoletako garaiak eta gertakizunak, txikitatik nerabetsu-nera gertatutakoak, unibertsitate garaikoak, maitasuna eta sexua, familia, euskaldunon izaera, musika, ohiturak... Hitz jokoak, egunerokotasunak eta euskal kulturarekin lotuta dauden gaiak abiapuntu moduan harturik, umorezko ikuskizun paregabea da “Irri par tsou”. Antolatzaileak: Antxomolantxa Elkartea eta Aginagako Eskola Txikiko Guraso Elkartea.

Abenduak 10, larunbata

■ 17:00 “Pirata Garrapata” antzezlan, Aginagako ludotekan. “Magia, antzerkia eta txotxon-

giloak tartekatzen dituen ikuskizuna aurkezten dugu, kutsadurak Naturan duen eraginaz hitz egin nahi duena. “Pirata Garrapata”k bidaia izugarriak egin ditu mundu osoan zehar. Bidaia hauetan guztietan hainbat abentura bizi ditu: Indian, txirula magikoa aurkitu zuen... Australian, poltsa magikoa eta Errusian, era guztietako edalontzietan sartzea lortu zuen”. Antolatzailea: Antxomolantxa Elkartea.

Gabonetako Txokoak Aginagan

Aurtengoan abenduaren 26tik 30era eta urtarrilaren 2tik 5era, Aginagako Eskola Txikiko Guraso Elkartek antolatuta. Goizez 09:00-10:00 artean finkatu dute, Aginagako ludotekan burutuko diren txokoetara sartzeko ordutegia. Irteera ordua berriz 13:00ean. Gabonetako aisialdiko ekimen honetan parte hartzeko, izena aurrez eman behar da, aginaga@eskola-

txikiak.org helbidera emaila bidalita, abenduaren 11 baino lehen. Prezioa, apuntatutako haur kopuruaren arabera zehaztuko da.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots, abenduaren 11n Oiardo Kiroldegian

“Tipi-tapa, korrika!” ikuskitun berrirako sarrerak aurrez salgai dituzue 7 eurotan, Bordatxon eta Marije arropa denda. Egunean bertan 8 eurotan eskuratu ahalko dira txartelak.

Saioa goizez izango da

Argiaren aldeko emanaldia abenduaren 11n, goizeko 11:30etan izango da Oiardo Kiroldegian.

Gabonetako Parkerako lan eskaintza

Opor giro betean izango diren 2-12 urte arteko haurrek, Usurbilgo Udalak antolatutako Gabonetako Haur Parkeaz gozatzeko aukera izango dute aurtien ere Oiardo Kiroldegian, abenduaren 26tik 28ra.

Abenduaren 26tik 28ra

Gunea kudeatuko duen enpresa, Aupa Kultur Lanak, parkean lan egiteko begirale bila dabil. Interesdunek aupa@aupakl.com helbidera bidali behar dituzte kurrikulumak. Aisialdiko begirale titulua eta EGA izatea ezinbestekoa izango da.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5


EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182


Otar-Goxo
Elizagaia
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil


ARRANDEGIA PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

Zuberoako ikastolen aldeko kanpaina

Abenduaren 9ra arte eska daitezke, Zuberoako ikastolak laguntzeko Nafartarrak taldeak abian duen kanpainako otarrak:

Saskiak

Ahüski: 450 gr ardi gazna, 125 gr ahate gibela, 150 gr bixkotx poltsa artisanala, 500 gr ezta, 200 gr euska xerriki pateia, 200 gr euskal xerriki odolkia. Prezioa: 40 euro.

Irati: 450 gr ardi gazta, 125 gr ahate gibela, 150 gr bixkotx poltsa artisanala, 500 gr ezta, 400 gr euskal xerriki lukainka, 640 gr axoa xahalki xehatua saltsan. Prezioa: 52 euro.



Abenduaren 9an amaituko da saskien eskaerak egiteko epea.

Eskaerak egiteko epea

Eskaerak egiteko aukera abenduaren 9ra arte izango da, elkarteak@noaua.eus, 943 360 321, edo lonxo@telefonica.net. Informazio gehiago: ikaskoli.eu

"Garazi" filma Sutegin

1959ko ordu erdiko film-dokumental honek, artzain baten bizimodua erakusten du. Abenduaren 17an, 19:00etan Sutegin. Nafartarrak taldearen eskutik.

Kabiene inauguratu dute



Azaroaren 25ean egin zuten inaugurazio ekitaldia.

Kabiene, autonomo eta free-lance ororentzat irekia dagoen bilgunea martxan da. Aurreko ostiralean inauguratu zuten, senide, lagun, udal ordezkari, edota eraikineko bizilagun dituzten Elhuyarreko kideen bisitarekin. Urtebetez landutako

proiektua martxan dela ospatu nahi izan zuten, bertaraturikoei egoitza barrutik erakustez gain. Informazio gehiagorako:

- Zelai Haundi 3 - 5. Solairua (Elhuyarren egoitzaren gainean)
- kabiene.com
- Facebook: KABIENE

Abenduaren 16an gabon festa Santuenean

Auzo elkarteko egoitzan ospatuko duten festatxoarekin egingo diote harrera Santuenean, ate joka ditugun gabonei:

Abenduak 16, ostirala

- 17:30 Ixabel Agirresarobere ipuin kontaketa saioa.
- 19:00 Otarren zozketa.
- 19:30 Txistor jana.
- Oharra: abenduaren 7tik 17ra antolaturiko gabonetako tailer artistikoan eginiko lanen erakusketa.

Antolatzailea: Santuenea Elkarte.

Afari beganoa, dilisten jaialdiaren atarian

Usurbilgo Gaztetxeak abendurako hainbat ekimen antolatatu ditu:

Abenduak 8, osteguna

20:30 Afari beganoa borondatearen truke.

Abenduak 17, larunbata

3. Kaosa eta Lentejak jaialdia. "Hasi prestatzen dilista errezeta berriak txapelketarako, lehia ziurtatua baitago!".

Usurbilgo frontoian:

12:00 Dilista txapelketa. Ekarri osagaiak eta eltzea.

14:00 Herri bazkaria (borondatearen truke).

Ondoren, sari banaketa, jolas herrikoiak eta txapela dutenen argazkia.

Usurbilgo Gaztetxean:

20:00 Kontzertuak: Asinus, Metralleta, Pato Pato, Gaitze, Hell Division, Paniko, Julio Alberto eta Kamorrah.

Oharra: txapela jantzita etorri. Antolatzailea: Usurbilgo Gaztetxea.

Abenduak 24, larunbata

Kitarrentzako pedalen tailerra. "Kitarrentzako pedalak garesti daudela eta nazkatuta, geronek egin genitzake eta hori ikasteko tailerra egingo dugu. Horrela Olentzerori esku beharrik ez! Pedalen menua laster zabalduko dugu! Interesatuak deitu 608 566 683 zenbakira".

Antolatzailea: Usurbilgo Gaztetxea.

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Patri

bazkariak EGUNERO
afariak. asteazkenetik larunbatera

943 362725 · 688 690 361

talak
36-60

INQUIETUD
JANTZI-DENDA

Nagusia 49, LASARTE-ORIA

Kaleragunerako prestatzen

Euskal preso, iheslari eta deportatuen kaleratzea eskatzeko exigentzia-
ren erdigunean bilakatuko da Usurbil, abenduaren 10etik urtarrilaren 8ra. Hilabeteko itxialdia antolatu dute hainbat preso ohiek, Dema plazan egokituko den karpa gunean. Hilabeteko tartean gainera, denetarikoko ekitaldiak, bilerak, eta agerraldiak tartekatuko dira. Beste herrietan antolatutako ekimenek osatuko dute, Usurbilgo Kaleragunea. Honatx lehen ekitaldien agenda:

Lehen ekitaldiak

■ Abenduak 10, larunbata: 17:30ean Kaleragunearen irekiera ekitaldia.

■ Abenduak 11, igandea: 13:00ean herri kirol erakustaldia Usurbilgo frontoian. "Iñaki Azurmendi eta Xabier Dorronsoro aizkolariak eta Idoia Etxeberria harrijasotzailea nor baino nor gehiago arituko dira".

■ Abenduak 13, asteartea: 19:00etan Hitzaldia Potxoenean, Urko Aiartzaren eskutik: "Presoen kaleratzea, bake prozesu ezberdinetan (Hego Afrika, Irlanda, Kolonbia)".

■ Abenduak 15, osteguna: 18:00etan Hitzaldia Potxoenean, Miren Illarreta eta Maritxu Paulus Basurkorekin: "Estatu Frantseseko presoen Erradiografia".

■ Abenduak 17, larunbata: 10:30ean hasita egun osoz, presoen bisitarien arteko mus txapelketa erraldoia. Preso bakoitzeko, bikote bat.



Abenduaren 10ean zabalduko da Dema-plazako Kaleragunea.

KALERA KALERA EKIMENA

"Presoak kalera ateratzeko exigentzia azaldu nahi dugu eta, era berean, euskal gizarteari presoen alde kalera ater dadin eskatu nahi diogu"

Herriko hainbat preso eta iheslari ohik bat egin dute ekimen honekin, eta ondoko idatzia adostu dute.

"Kalera Kalera! Bakea eta Askatasuna irabaztera"

Dagoeneko bost urte igaro dira, eta denbora horretan guztian, eskakizunak etengabeak izan badira ere, emandako pausuk inoiz ez nahikoak. Iragana den gatazka armatuaren ondorioak erabakitzeke inolako mugimendurik gabeko bost urte.

Preso politikoen gaia da nabarmenena, eta aurrera egin ordez, atzera egin da gainera. Gaur egun espetxeetako egoera aurreko urteetakoa baino larriagoa da, eta espetxetik ateratzeko aukera urrunago dagoela dirudi; izan ere, oraindik

ezartzen den espetxeko legeria salbuespenean, neurrigabeherian eta mendekuan dago oinarritua.

Euskal preso politiko ohiek, etorkizunari konponbiderako ekarpena egin nahi dion euskal presoen kolektiboa eta EPPK-ko kideak babesteko premia sentitzen dugu. Hori dela eta, gure ustez, herri borroka sustatzeko unea iritsi da, eta preso guztien kaleratzea zein iheslari guztien itzuleraren beharra exijitzeko unea ere bai. Denak kalera.

Kalera, Kalera... da ideia eta dinamika ere izan behar du. Kalera, kalera ekimen, aukera eta salto kualitatibo gisa. Sakabanaketa, larriki gaixorik dauden presoen egoera, eta presoek jasaten dituzten beste hainbat giza eskubidearen urratzea salatzeke eskaeren ideia osagarri izan behar du. Era berean, presoen kaleratzea eta gatazkaren ondorioen erabakian, gehiengo sindikal, politiko edota erakundeek antolatutako ekimenen osagarri.

Kalera, Kalera! Bakea eta Askatasuna irabaztera! Batetik, preso politikoei aukera eskaini

nahi diegulako, eta bestetik, amnistia, bakea eta Euskal Herriarentzako askatasunaren alde irmotasunez borrokan aritu diren pertsona orori aukera eskaini nahi diegulako. Kalera, kalera, etorkizuneko erronka da, eta helburua lehenbailehen denak ateratzea.

Kalera! Bai, "presoak kalera" Euskal Herriaren borrokan kontsigna izan delako, eta denak aterate arte kontsigna izaten jarraitu behar duelako. Kalera, espetxea eta erbestea ezagutu dugunok argi utzi nahi dugulako ez goazela etxera, kalera goazela borrokan jarraituzera.

Kalera, kalera... presoak kalera ateratzeko exigentzia azaldu nahi dugulako, eta era berean, euskal gizarteari presoen alde kalera ater dadin eskatu nahi diegulako. Kalera, kalera... presoak ateratzeko eskaera izateaz gain, konpromisorako eta borrokarako deia da. Bizitza osoan, modu batera edo bestera, amnistia, bakea eta askatasunaren alde lan egin duten milaka hiritarri egindako deia. Presoak kalera aterate nahi ditugu, askatasuna lor dezaten, eta kalean, gure aldamenean borrokan jarrai dezaten bakea eta askatasuna irabazteko.

Joxe D. Aizpurua, Marisa Alejandro, Xabier Aranburu, Koldo Lizaso, Jokin Errasti, Oihana Lizaso, Julian Bengoetxea, X. Ezkerra, Jesus Iparragirre, Iñaki Errekondo, Ramon Uribe, Agurtzane Solaberrieta, Olatz Altuna, Sebas Kardenas, Celestino Kamino, Patxi Segurola, Patxi Añorga, Kornelio Roteta.

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAQUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
eraikuntzak-OBRAK-ERREFORMAK

Usurbilgo galdeketa, 2017ko maiatzaren 7an

Urtea eta hilabetea ba-genekien; eguna finkatu zuten larunbatean. 2017ko maiatzaren 7an egingo da Usurbilen, baita Lasarte-Orian edota Urola Kostan ere, erabakitze eskubidearen inguruko galdeketa. Azaroaren 26an eman zuten ezagutzera data zehatza, Usurbilgo Gure Esku Dago lan taldeak Potxoenean deitutako batzar irekian.

Galdeketa nontik norakoak aurkeztu zituen lan taldeak; Usurbilek galdeketa olatu batu nahi badu, hurrengo hilabeteotan bideratu beharko dituen antolaketa lanak zeintzuk diren. Urratsak noiz eta nola eman beharko diren.

Herritarren esku egongo da antolaketan lana. Honenbestez, herritarren parte hartzearen esku geratuko da Usurbilgo galdeketa ospatzea ere. "Olatu hau hartzeko prest gaude?", galdetzen zuten erabakitze eskubidearen aldeko lan taldeetik azken batzar irekian. Jendea parte hartzea animatzen dute, norberak ahal eta nahi duen neurrian. Dagoeneko izen ematea zabaltzen dute. Antolatzailerekin hartuemanetan jarri nahi duenak, Gure Esku Dago taldekoek sare sozialetan duten orrialdeen bidez egin dezake. Edo bestela, ostegun honetarako, abenduak 1, 18:30etan Potxoenean deitu duten bilera irekira gerturatu. Bertan, norberak nahi dituen ekarpen eta proposamenak egin ahalko ditu. Esku zabalik hartuko ditu Usurbilgo Gure Esku Dagok.

Lehen zereginen artean, elkarte sortzea

Denbora gehiago galdu gabe ekin nahi diete prestaketa lanei. Lehen zeregin nagusietakoa, urtea amaitu baino lehen, galdeketa antolatu eta ospatzeko prozesu osoa ku-



Aurreko larunbatean Potxoenean egin zen bileran iragarri zuten galdeketa eguna. Lasarte-Orian eta Urola Kostan ere, egun berean egingo da.

GURE ESKU DAGO USURBIL

Galdeketa nontik norakoak aurkeztu zituen lan taldeak; Usurbilek galdeketa olatu batu nahi badu, hurrengo hilabeteotan bideratu beharko dituen antolaketa lanak zeintzuk diren. Urratsak noiz eta nola eman beharko diren.

deatuko duen elkarte sortzea izango da; elkartearen izena jarritza, dokumentazioa prestatu, estatutuak inskribatu... "Elkarrekin honek herri galdeketa aurrera eramateko beharrezkoak diren lan eta antolaketa prestatuko ditu", zehaztu du Usurbilgo Gure Esku Dagok. Gaineratu dutenez, elkarte berriak "printzipio hauek bermatu behar ditu: batzorde sustatzailearen neutraltasuna, gardentasuna, argitasuna, informazioa eskuratzeko aukera, datu pertsonalen babesa, aniztasuna, eraginkortasuna, inklusioa, diru kontuak garbi eramatea". Osatuko den elkarteak bizi iraupen mugatua izango du. Galdeketa amaitu ostean desegingo da.

Erabakitze

Erabakitze eskubidearen aldeko giza-kate erraldoia egin zen Durango eta Iruñea artean 2014an. Urtebete beranduago, erabakia sartzeko urratsa eman zen. Eta 2016tik erabakia gauzatzen hasiak dira hainbat udalerrri. 2017an besteak beste, Usurbilen txanda izango da. Honatx, galdeketa prestatu eta

ospatzeko hilabeteotan gauzatzea aurreikusten den prozesua:

Antolaketa egitura

Talde sustatzailea

Galdeketa antolatzeko erantzukizun maila nagusia izango duen bilgunea. Asteotan, antolaketan egutegiko lehen erroka abiatzeaz arduratuko da.

Lan taldeak

Bereziki, antolaketa lanen egutegiko 2. errokan baitan dauden zereginaz arduratu beharko dute. Lau lan talde osatzea aurreikusten da:

- 1- Galdera zehazteko/harremak.
- 2- Ekintzak/kale presentzia/komunikazioa.
- 3- Diru-zaintza/logistika.
- 4- Protokoloak-legea.

Berre Batzordea

Galdeketa berme guztiekin antolatu eta ospatzeaz arduratuko da taldea. Beranduenez, galdeketa antolaketa lan azken faserako osatu nahi da. 3. errokan baitako zereginetako bat izango da.

Hiru olatu, 2017an

Galdeketa hiru olatu izango ditugu 2017an:

■ Martxoaren 19an: Oarsoaldean, Tolosaldean, Hernani eta Astigarragan...

■ Maiatzaren 7an: Usurbilen, Lasarte-Orian, Urola Kostan, Bizkaiko zenbait txokotan...

■ Ekainaren 10ean: ekitaldi nazionala Bilbon.

■ Ekainaren 18an: Nafarroako 30 herrietan (Bortziriarriak, Leitza, Areso, Lekunberri inguruetan...).

Antolaketa lanen egutegia

Abenduak 1, osteguna

18:30 Batzar irekia Potxoenean.

1.erroka: Abendua-urtarrila

Bideratu beharreko lanak: taldearen manifestua, sinadura bilketa, herritarrek aktibatu, argazkia eta CIF-a lortu.

2.erroka: Urtarrila-otsaila-martxoa

Bideratu beharreko lanak: galdera definitzeko prozesua, diru iturriak izateko ekimenak, mahaietarako boluntarioak, aurrekontua kalkulatu.

3.erroka: Apirila-maiatza

Bideratu beharreko lanak: azken zehaztapenak, Berme Batzordea sortu, parte hartzea sustatzeko kanpaina.

Galdeketa:

2017ko maiatzaren 7an (bai Usurbilen, baita Lasarte-Orian, Urola Kostan...).

Izen ematea

Galdeketa antolatzeko lanetan parte hartu nahi duenak, osteguneko, abenduaren 1eko batzarrera agertu (18:30etan Potxoenean). Hor finkatuko dira hurrengo bileren hitzorduak, lan taldeen osaketa...

Harremanetarako

Usurbilgo Gure Esku Dago taldearekin kontaktatzeko: usurbilgureeskudago@gmail.com
Facebook: Gure Esku Dago Usurbil
Twitter: @GureEskuDagoU

Milaka gipuzkoar, irtenbide adostu eta osasuntsu baten eske

Milaka gipuzkoar batu zituen GuraSOSek larunbat arratsaldean Donostian egin zuten manifestazioan, hondakinen afera konpontzeko irtenbide adostu eta osasuntsuaren alde, etorkizun hobeago baten alde.

Erraustegiak seme-alabengan izan dezakeen eraginatik kezkatutako guraso taldea izanik, txuriz jantzitako haurrak izan ziren “Gipuzkoa +: eman bidea osasuna eta adostasunari” aldarripean egindako manifestazioari bidea ireki ziotenak. Atzetik ehunka familia, milaka lagun abiatu ziren Araba parketik Alderdi Ederrentz. Easo kalea, alderik alde bete zuten mobilizazioarekin bat egin zutenek.

Manifestazio bukaeran, txuriz jantzitako ehun hurrek bihotz bat osatu zuten, beste haur talde batek, amaiera ekitaldia ospatu den oholdza gainetik “Adostasuna SOS” esaldia argiztatzen zuen artean. Manifestua, Estitxu Fernandezek eta Joxe Mari Izeta usurbildarrak irakurri zuten.



Txuriz jantzitako haurrak izan ziren “Gipuzkoa +: eman bidea osasuna eta adostasunari” aldarripean egindako manifestazioari bidea ireki ziotenak. Jendetza batu zen Donostiako kaleetan.

GURASOS

“Gaurtik aurrera, guztiok batera Gipuzkoa osasuntsuago baten alde egingo dugu”

“Denok batera lortuko dugu”

“Gaur Gipuzkoak adostasunaren eta osasunaren bidea aukeratu du. Gaur Gipuzkoak

liskarrari ezetz esaten dio, zatiketari ezetz esaten dio, eta ezetz esaten dio inposaketari. Gaurtik aurrera, guztiok batera Gipuzkoa osasuntsuago baten alde egingo dugu”, zioten.

Gaiari buruzko informazio gehiago izan eta eztabaidatzea eskatu zieten agintariei. Osasuna lehenetsiz, “herritarrei entzutea”. Parte hartu ahal izatea baita, hondakinen gaiari irtenbide gehiago eta hobeak aurkitzea, eta horretarako ezinbeskotzat jo zuten erraustegia

eta Mutiloako lizitazioak gertatzea. “Hondakinen plan orokorra legalizatu beharra dago, aurrekoa baloratu eta berrikusi”, gaineratu zuten. Ordezkaritza politikoa eta gizartea elkarlanean arituz gero hondakinen arazoa konpontzea “denok batera lortuko dugu, oraindik garaiz gaudelako”. Eta batez ere Gipuzkoak eta “gure seme-alabek merezi dutelako”. Gogoan izan, hondakinen afera konpontzeko GuraSOSek 8 puntuko bide-orria plazaratua duela.

Musika, eskolatik plazara



Santa Zezili eguna kalejira batekin eta kontzertu batekin ospatu zuten Zumartekoek. Eskubiko argazkian Zumarte Abesbatzako gazteak ageri dira. Hondarribian

izan ziren asteburuan tailer batean parte hartzen. Hain zuzen, Zumarte Abesbatzak Gautena gure erara izena duen egitasmoan hartuko du parte igande



honetan, Kursaal. Dagoeneko sarrerak salgai dira bertako web orrian: kursaal.eus. Emanaldi hau Donostia 2016 ekitaldien baitan kokatzen da. Azkenik,

Zumarte Musika Eskolako akordeoiko ikasleek XXXVII Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketan hartuko dute parte. Abenduaren 8tik 11ra, Arrasaten.

ABENDUAK 11, IGANDEA
ZINEA

GUTIK
ZURĀ
IPAGANA. ORAINA ETA ETORKIZUNA

19:00 SUTEGIN

SARRERA: 6€. (Aldez aurretik Bordatxon, Lizardin eta Noaua!n) Bazkideek 4€tan erosi ahal izango dute Noaua!ko egoitzan aldez aurretik.

Logoak: Gipuzkoako Foru Aldundia, Euzko Legebiltzariaren Gabeino Vasco, Urtxibetako Udalea, noaua

2017ko irteerak

BIDAIA TALDEAN
Irteera Lasarte-Oriatik
Noaua Bidaiek lagunduta

AEB-KO MENDEBALDEKO
kosta

MAIATZA

BALTIKOKO
hiriburuetatik
kuzeroa

UZTAILA

POLONIA

ABUZTUA

Informazioa eta erreserbak bulegoan.

NOAUA BIDAIAK
GRUPO CLICK VIAJA

Hipodromo Elorrikoa, 10 - 20100 Lasarte Oria, Gipuzkoa
T. 943 373 613 | info@noauidaiak.com
www.noauidaiak.com

URDAIRA

Sagardotegia

Abenduak 17, LARUNBATA
BARRIKOTEA
20.00h Urdairan

Aginaga 943 37 26 91

URDAIRA
SAGARDO NATURALA
SIDRA NATURAL





Klik! batean

Ikusmiran

Erlakumea hartzeko prestatzen den babesa da, erle ontzia. Erleen koloniek 80.000 kide izan ditzakete, hiru kastatan banaturik: erlamandoak, erle langileak eta erregina. Normalean, erle langileak baino ez ditugu ikusiko erlauntza parean. Erle Eguneko erlauntz honek, ordea, jende asko erakarri zuen. Ikusmiran.

Argazkia: Ion Markel

Tiburtxioren omenez

Ilbaldi eta ariketa fisikoen bidez, bizi ohitura osasuntsuak sustatzen dituen “Goazen kalera!” egitasmoak lehen hila-beteko bidea osatu du. Adineko eta dibertsitate funtzionala duten herritarrei zuzenduriko ekimen honetan, 96 lagun izena emanda daude. Begi bistakoa da beraz, ekimena izaten ari den arrakasta. Asmo honen sustatzaile izan zen Tiburtzio Arruti, eta bere omenez ekitaldia egin zuten azaroaren 23an Artzabalen.

Asteazkenero biltzen dira, herritik barrena paseotxoak egin edota sasoiari mantentzeko ariketak egitera. Azken ibilaldiak amaiera berezia izan zuen. “Goazen kalera!” proiektu honen sustatzaile nagusia omendu baitzuten; uztailean mendian zendu zen Tiburtzio Arruti usurbildarra.

“Oso ondo biltzen du Tiburtxioren izaera”

“Tiburtzio ekarri nahi dugu gogora, iruditzen zaigulako, zuek zarete horren lekuko, egitasmo honek asko duela beretik eta berak asko eman diola proiektu honi, eta zor bat badugula berarekin”, zioen Usurbilgo Udaleko alkate Xabier Arregik, Tiburtxiok bigarren etxea zuen Artzabalgo ekitaldi aretoan.

Alkatearen esanetan, “Goazen kalera” egitasmoak “oso ondo biltzen du Tiburtxioren



Hutsune handia utzi duela eta utzi duen arrastoa “gurekin eramango dugula” aipatu zuen alkateak.

XABIER ARREGI

**Alkatearen esanetan,
‘Goazen Kalera’ egitasmoak
“oso ondo biltzen du
Tiburtxioren izaera”**

ren izaera. Oso gustukoa zuen mendia, ibiltzea, kalean, naturarekin harremanetan egotea. Bestetik, Tiburtxioren izaeran oso nabarmentzekoa da bere herrigintzarako grina. Gaur egunean, zoritxarrez, individualismoa, norbere ziliborrari begira bizitzea hain ohikoa denean, Tiburtxiok beste balore batzuk zituen, oso nabarmen erakusten zituen gainera. Beti ari zen auzolanari eta talde lanari begira. Proiektu honetan bertan, zenbat ordu eta ahalegin egin dituen. Herrigintzan aritzen den Tiburtzio bezalako pertsona bat oso eredugarria da eta berak egin-

dakoa oso handia izan da”.

Tiburtxioren omenez, enborzati batean tailatutako bertso bat zuen plaka bat jarri zuten, Artzabalgo ekitaldi aretoko horman. Inazio Usarralde idatzitakoa da bertsoa.

“Eskerrik asko guztioi”

Esker oneko agertu zen, ekitaldian parte hartu Tiburtxioren bidelagun Arantzazu Aranburu. Udalaren eskutik, Usurbilgo herriaren izenean, bertsoaren kopia eta lore sorta bana jaso zituen txalo artean. “Eskerrik asko guztioi, Tiburtxioren, neure eta familia osoaren izenean. Bere huts egiteak izango zituen, baina egin duena ere handia izan da. Ilusioz betetako ibilaldia izan zuen. Hemen islatzen da, etxean eta kalean ere bai. Guretzat, eta neuretzako partikulari oso pozgarria da. Eta poz handi handia ematen didana da berak

utzitako eredu honetan, edo denon artean eraikitako urrats horietan barrena aurrera egiten duzuela, jarraitzeko grina eta ilusio guztia ikusten dizuedala. Beraz eskerrik asko eta jarrai holaxe!”, adierazi zien Arantzazuk ekitaldira bertaraturikoei.

Sarituak

“Goazen kalera” egitasmoan Hurbilago Elkartek ere parte hartzen du. Omenaldi egunean bertan zozketa egin zuten eta Arantxa Sagardia eta Pedro Franco izan ziren sarituak. Juantxo burdindedan erosketak egiteko balea eta Alkartasunaren produktu sorta irabazi zizuten, hurrenez hurren.

Tiburtzio Arrutiri

Uztailean samindurak gogor jo digu atean Tiburtzio, zure berri Artzabalen jakitean. Ordutik hustasuna bizi da Gure Pakean. Horma hauek hitz egiten balekete bat-batean. Lanean bakana zinen, asperdurari atakean, antolakuntza lanetan zu inoiz ez apartean. Berdinduko al zaitugu zeneukan borondatean? Guran ibiliko zara kalera goazen artean (bis). Doinua: Habanera.



Ekonomia **Suspertzeko**

Plana

Gure lurraldeko **ekonomia, enplegua eta ongizatea** indartzeko.

200M€
2015 > 2019

gipuzkoa.eus/ekonomia

Industria


Lehen Sektorea

Gizarlarietza

Kultura eta Turismoa

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



OIARDO KIROLDEGIA (USURBIL) ABENDUAK 11, IGANDEA

saio bakarra: 11:30ean

Sarrerak: aurretik 7 euro, egun berean 8 euro (12 hilabete arteko haurrak doan)

Eskuratu zure sarrera:

☎ 943 37 15 45

sustapena@argia.eus

Antolatzailea

ARGIAren Adiskideak
Usurbilgo Taldea

 **ARGIA**

“Bizi Kalea” gune gastronomikoa, berrikuntzekin Artzabalen

Tipi-Tapak arrakastatsua egin zuen jauzi plazara azaroaren 13an. Tabernetako pintxo festa, ibiltaria izango den azoka edo gune gastronomikoan bihurtua dugu ordutik. Hileroko “Bizi Kalea” izeneko egitasmo honen hurrengo edizioa abenduaren 11rako iragarri dute, Artzabalen oraingoan.

Eta berrikuntzekin, jan edari eta gunea girotzeko izango diren hitzorduei dagokienean. Urdaiazpikoa, onddo nahaskia eta parrillan sukaldaturiko otarrainxka dastatu ahaliko dugu. Gogoan izan, jatekoa eskuratzeko txartelak erosi beharko direla.

Txartelak, zenbakituak

Txartel zenbakituak izango dira, egunean bertan egingo diren zozketetarako baliatuko direnak. Hiru zozketa saio iragarri dituzte bigarren edizio honetarako. 150 euroko erosketa balearen eta tabernariak emandako opariak irabazteko aukeraz gain, sari gehiago ere izango dira. Udazken honetan bertan, Hurbilago Elkarteak antolatutako argazki lehiaketako txapeldunak nortzuk diren emango baita ezagutzera.

Lartzandietako poniak

Trikitilariak girotuko dute abenduaren 11ko “Bizi Kalea”. Baina izango da goiza girotuko duten ekintza gehiago ere; Txokoaldeko Lartzandietak ba-



Abenduaren 11n ospatuko da eta ekitaldi ugari prestatu dituzte.

HAURRENTZAT TAILERRA

“Txirinbolo dendakoen eskutik, haurrentzako tailerrak antolatuko dituzte. Euro baten truke, gabonetako zintzilikagarriak lantzeko aukera izango dute etxeko txikiak”

serriko Iñigo Huegunek poniak ekarriko ditu. Artzabalek abiatuta, poni gainean paseoak egiteko aukera izango da doan. Txirinbolo dendakoen eskutik aldiz, haurrentzako tailerrak antolatuko dituzte. Euro baten truke, gabonetako zintzilikagarriak lantzeko aukera izango dute etxeko txikiak. Materiala saltokiak berak jarriko du. Olentzerori gutunak idazteko aukera ere izango da. Eta goi-

zean zehar, haurrak lasterka batean jarriko dituen buruhandien bisita espero da. Argi denez, kale giroa indar gehiagoz bizitzera dator bigarren, Hurbilago Elkarteak antolatutako egitasmo hau.

“Bizi Kalea” Artzabalen Abenduak 11, igandea

- 11:00-14:30 “Bizi Kalea” Artzabalen.
- Goizean zehar, trikitilariak, haurrentzako tailerrak Txirinbolo dendaren eskutik, buruhandiak, paseoak poni gainean Lar Zaldiak-en eskutik.
- 13:30/14:00/14:30 150 euroko erosketa balearen eta tabernariaren opariaren zozketak.
- 14:00 Hurbilagoren Argazki Lehiaketako sari banaketa.
- Tokia: Artzabal.
- Antolatzailea: Hurbilago Elkarteak. Laguntzailea: Udala.

Abenduaren 16an, barrikotea Andazpen

Andazpe Elkarteak urtero bezala barrikotea antolatuko du. Datorren abenduaren 16an 20:30etan izango da 25 euroren truke. Menua honako hau izango da: bakailaoa saltsan eta tomatearekin, saiheskia, postrea, kafea eta kopa.

Izena emateko epea abenduaren 11n amaituko da.

Inauteri Festarako gaia proposatu

Abenduaren 16a arteko tartea duzue, otsailaren 25ean Usurbilen ospatuko dugun Inauteri Festarako gaia proposatzeko. Zuen ekarpenak, elkarteak@noaia.eus helbidera helarazi ditzakezue. Edo bestela, tabernetan jarriak ditugun zerrendetan idatzi. Hautatutako gaiaren berri, abenduaren 23ko NOAUA!n plazaratuko dugu.

Abenduaren 8an, Odol Emailen Eguna

Herriko odol emailak abenduaren 8an ospatuko dute haien eguna. Atxega Jauregian egingo duten bazkari baten bueltan izango da.

Aldez aurretik izena eman

Otordurako izena aurretik eman beharko da, telefono zenbakiotako batera deituta:

- Maite: 943 366 040
- Mari Sol: 943 372 487
- Agustina: 943 363 102

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAQUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
eraikuntzak-OBRAK-ERREFORMAK



**Matrakak,
Usurbilen Nahi Ditugu**

Azaroak 25

Azaroaren 25a da gaur, emakumeon aurkako indarkeriaren eguna, baina baita hileko azken ostirala ere. Horren harira, Usurbilen Nahi Dituguk eta Matrakak herriko talde feministak elkarlanean dei egin dugu elkarretaratze honetara. Arantza Zulueta presoaren kasua salatzekeo erabiliko dugu.

Arantza Zulueta abokatua da eta Euskal Preso Politikoen Kolektiboren bitartekarien taldean parte hartzen zuen espetxeratu zuten arte. 2010az geroztik hiru aldiz atxilotu dute: 2010eko apirilean, 2011ko uztailean eta 2014ko urtarrilean. Gaur egun, Puerto III kartzelan daukate preso, Cadizen, etxetik 980 km-ra.

Ia hiru urte daramatza espetxean eta denbora horretan bakarturik egon da, espetxe zaindarekin ez beste inorekin harremanik izan gabe kasik, egunean ziega barruan 20 ordu ematen dituela. Hori salatzekeo, azken bolada honetan ugaritu egin dira protestak eta ekinbideak; eta gaurkoan, Usurbilen Nahi Dituguk eta Matrakak talde feministak ere bat egin dugu Zulueta bakartzetik atera eta libre uzteko eskaerarekin.

Gogora ekarri nahi dugu nazioarteko erakunde askok torturatzat jotzen duela pre-



Usurbilen Nahi Ditugu taldeak eta Matrakak herriko talde feministak Arantza Zulueta presoaren kasua salatu zuten aurreko ostiralean.

ZULUETAREN KASUA

“Ia hiru urte daramatza espetxean eta denbora horretan bakarturik egon da, espetxe zaindarekin ez beste inorekin harremanik izan gabe kasik, egunean ziega barruan 20 ordu ematen dituela”

so bat hamabost egun baino gehiago bakarturik edukitzea; Arantzak bi urte eta hamar hilabete daramatza egoera horretan. 20 ordu jarraian ematen ditu ziegan (gehiago ez denean), ondoren, 6 x 13 metroko patio batetara ateratzen dute, horma luze eta sabai itxia duenera. Bere ziegaren aldamenean, aire erauzgailu

bat dago eta ondorioz, ziega barnean egon behar duen ordu luzeetan, zarata jasangaitza pairatu behar du.

Honi guztiari, ikuspegi feministatik, genero aldagaiak emakume presoengan, eta beraz, baita gure herrikide Olatz Lasagabasterrengan ere, duen eragina gehitu behar diogu, orokorrean espetxeak gizonezkoentzat prestatutako unitertso zurrunka baitira. Hala gertatzen da Arantzaren kasuan ere. Bakartze modulua gizonezkoentzat prestatutako gunea da. Gizonez inguratuta dago; gizonezko espetxezainek zelatatzen dute, eta haren ziega miatzen dute; espetxezainen konfiantzako presoak ibiltzen dira inguruetan zelatatzen, eta ziegatik ateratzen den aldiro ukimen bidezko miaketa

bat egiten dio espetxezain emakumezko batek inguruan gizonak begira dituelarik.

Hau gutxi balitz, inoiz edo behin, Zulueta gizonezko presoaren bat egokitu zaio aldameneko ziegan, lekualdatze baten ondorioz behin-behinean hara sartuta. Teorian, emakumezkoak baino ez lituzkete sartu behar ziega horietan, baina «salbuespen» gisa gizonezkoak ere sartu dituzte —gutxienez zortzi aldiz gertatu da «salbuespen» hori—. Nabarmenezkoa da gizonezko horietako batzuk «emakumeekin duten jarrera matxistagatik» ezagunak direla. Kartzelari eta bakartzeari matxismoan eta boterean oinarritutako harremanak gehituta koktel indartsua sortzen da.

Honen guztiaren aurrean, elkartasun feminista azaldu nahi diogu, bereziki, Arantza Zulueta eta baita gainerako presoek ere. Bakartze egoeratik atera eta libre uzteko exijitzen dugu. Izan ere, gogoratu beharra dago Zulueta behin-behinean dagoela preso eta sumario berean auzipeturik dauden 40 bat lagunetatik espetxean dagoen bakarra bera dela. Zulueta kalean beharko luke, eta ez inongo epailek ezarri ez dion zigorra betetzen.

Euskal presoak etxera!
Gora borroka feminista!

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus

Usurbildarrak Durangoko Azokan

Ohi baino lehenago irekiko ditu ateak aurtan, 51. Durangoko Azokak. Abenduaren 2tik 6ra, bost egunez hain zuzen. "Bizitzekoa DA!" aldarria hautatu dute edizio honetarako.

Azken urtean argitaraturiko usurbildarren produktu ugari aurkituko ditugu Durangon egunotan; Yolanda Arrieta, Rukula, Izeberg, Jakoba Errekondo, Joseba Larratxe, Labrit...

Usurbildarren hitzorduak:

Eskaintza zabala prestatu dute Durangoko Azokan. Tartean, hitzaldi eta zuzeneko hainbat emanaldi. Usurbildarrak ere ikusiko ditugu solasean nahiz tailer edota kontzertuak eskaintzen:

Abenduak 2, ostirala

■ 10:30-11:30 / 12:00-13:00 Areto Nagusian: Yolanda Arrietaren "Nola egin liburu baten iruzkina" tailerra.

Abenduak 3, larunbata

■ 12:30 Saguanbara aretoan "Kulun kuttunak" olerki liburuaren aurkezpena. Yo-



Ostiral honetan zabalduko dira 51. Durangoko Azokaren ateak. Aurtan, abenduaren 6ra arte iraungo du euskal disko eta liburuaren azokak.

landa Arrieta Aitziber Alonso ilustratzailearen eskutik. Ipuin kontaketa saioa izango da, familia osoarentzat egokia.

■ 16:30-17:00 Ahotsenea Solasaldiak gunean: Jakoba Errekondo, Asisko, Unai Iturriaga, "Mattin", Ainara Azpiazu, Antton Olariaga, Zaldieroa, Unai Gaztelumendi eta Joseba Larretxe: "Bizi Baratzea, Altxa Porru".

■ 19:00-19:30 Ahotsenea Zuzenekoak gunean, Izeberg taldearen kontzertua: "Lurrik ez begi bistan".

Abenduak 4, igandea

■ 15:40-16:10 Ahotsenea Zuzenekoak gunean, Labriten emanaldia: "Zortzi".

Abenduak 5, astelehena

■ 14:20-14:50 Ahotsenea Zuzenekoak gunean, Rukula taldearen kontzertua: "Rukula".

■ 17:00-17:30 Areto Nagusian: "Ilargiaren Egutegia, Bizi Baratzea" egutegiaren aurkezpena, Jakoba Errekondo eta Pello Zaballarekin.

Informazio gehiago:

■ durangokoazoka.eus

Amador Granados, Gipuzkoako kirol saria jasotzeko hautagai

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Kirol Ekitaldia ospatuko du abenduaren 14an, 18:45ean Irungo Ficoban. Aurtengoan, udan Rioko Olinpiar eta Paraolimpiar Jokoetan parte hartu duten 160 kirolari gipuzkoarrak omendu nahi dituzte. Dakizuenez, Paraolimpiar Jokoei parte hartzaileen artean usurbildar bat izan genuen; Amador Granados Alkorta. Brontzea eskuratu zuen taldekako proban. Informazio gehiago eta bere alde bozkatzeko egin beharrekoaren berri, Facebookeko "Gala del deporte Gipuzkoano" orrialdean jaso dezakezue.

Hurbilago San Silvestre

Zazpigarren ediziorako izena aurrez eman beharko da. Ohi bezala doan, hurbilago.com atarian edo Hurbilago Elkarteko establezimenduetan. Las-terketa herrikoia, abenduaren 31n abiatuko da 17:00etan frontoitik.

Pilota partidak

Abenduak 2 ostirala, Usurbilen 20:00etan, kadete mailan: Iruretagoiena-Olaizola.

Abenduaren 18an, San Tomas Azoka

Goiz pasa ederra biziko duzue abenduaren 18an, frontoi ingurura gerturatzeko bazarate. San Tomas Festak osagai anitz dakartza-eta. Hasteko, baserritar jantzia prestatzen hasi. Txikientzako Ixabel

Agirresarobe herritarren ipuin kontaketa saioa izango dugu. Jan-edanik ez da faltako, talo-gile eta gaztaingileekin. Lehian ariko diren ekoizleen sagardoa ere dastatzeko aukera izango da. Herritar ekoizleen postuak

ere erakarri nahi ditugu aurtengoan. Eta NOAUA!k ere txoko propioa izango du kultur elkarteko produktuekin, bazkide-tza tramitatu edota Fotokolean argazkia atera dezazuen. Parte hartzen duzuenon artean, Zu-

beroako ikastolak laguntzeko elkartasun kanpainako eta Errigora ekimeneko otar bana zozketatuko dugu. Frontoi ingurua girotzen ariko zaizkigu baita Erraldio eta Buruhandien Konpartsakoak.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

ETXETRESNEN

KONPONKETAK

azkar, prezio onean MARKA GUZTIAK
20 URTEKO ESPERIENTZIA



645417665

XABIER

Usurbil

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Abenduaren 11n, Artikutzara

Oiartzungo Karrikatik abiatuta, "Artikutzako trenbide zaharren bidea ezagutuko dugu", azaldu dute Andatza M.K.T.-tik. Abenduaren 11ko txangorako izen emateko azken egunak dituzue:

■ Abiatzeko hitzordua: 08:00etan Oiardo Kiroldagitik. Joan etorria: autobusez.

■ Ibilbidea: Karrika-Kausoro, Artikutzako trenbide zaharra. 9 km.

■ Izen ematea: 8 euroko ordainketa egin abenduaren 5a baino lehen, Andatza M.K.T.-ren kontu zenbakiotako baitan:

Rural Kutxa:

3008 0259 1630 0543 0321.

Kutxabank:

2095 5069 0710 6848 9805.



Artikutzako trenbide zaharreko bidea osatuko dute Andatzako kideek. 9 km guztira. Izena emateko epea abenduaren 5ean amaituko da.

■ Oharrak:

-Plaza mugatuak.

-Andatza M.K.T.-ren irteeretan derrigorrezkoa da mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean edukitzea. "Federatu gabe dagoenari tramitea egingo diogu, hala nahi badu. Horre-

tarako gure web orria aurkitzen da egin beharrekoa, edo gurekin harremanetan jarri andatza@hotmail.com helbidean. Komeni da ahalik eta azkarren egitea".

Informazio gehiago:

andatza.com

Antolatzailea: Andatza M.K.T.

Eskubaloia Kiroldegian Abenduak 3, larunbata

■ 09:00 Infantil neskak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi A Usurbil-Leizaran A.

■ 10:15 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi D Usurbil-Argiki.

■ 11:30 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi A Usurbil-Arrasate.

■ 13:00 Jubenil mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Ereintza.

■ 19:15 Zarauzko Aritzatalde Kiroldegian, kadete mutilak Euskal Liga: Usurbil K.E.-Ereintza.

Abenduak 4, igandea

■ 10:00 Senior neskak, Zilarrezko Ohorezko Maila: Usurbil K.E.-Suregranca Gran Canaria.

■ 12:00 Senior mutilak, 1.nazionala: Ucin Aluminio Usurbil-Uharte.

Abenduak 6, asteartea

10:30 Infantil neskak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi B Usurbil-Eibar C

Usurbil Futbol Taldearen deiak

Futbol taldeen bilgunetik bi egitasmo berri jarri dituzte martxan, NOAUA!ri berri eman diotenez:

Argazki lehiaketa

Usurbil F.T.-ko infantil neska eta mutilei zuzendurikoa. Abenduaren 12ra arteko epea dute argazkiak atera eta aurkezteko. Hara-neko mugimendua isla dezakete irudiok, antolatzaileek adierazi dutenez; jolasak, lagun artea, elkarlana... Edota bestela, Usurbil, auzoak, natura. Bi gaiokin lotuta, parte hartzaileek aurkezturiko argazkien proiektzioa eta sari banaketa egingo du Usurbil F.T.-k abenduaren 16an Potxoenean.

Bartzelonara bidaia

Duela zazpi urte egin zuten moduan, 2017ko apirilko Aste Santuko oporraldian Bartzelonara bidaia antolatzekotan da Usurbil F.T., apirilaren 15 eta 16ko asteburuan Realak Bartzelonaren aurka jokatu duen neurketa izango dela baliatuta. "Bidaia Bartzelonaz gozatu eta Barça-Real partida ikusi nahi duen ororentzat izango da".

Abenduaren 5ean bilera

Bidaia prestatzen hasteko, eta behar beste argibide jasotzeko informazio bilera deitu du Usurbil F.T.-k, abenduaren 5erako 18:00etan Potxoenean.

Zubieta, txapeldunorde



Euriagatik bitan atzeratu ostean, hirugarrenean posible izan da. Zubietarrek jokatu dute azkenean, Endika Abril Errebote Txapelketako final handia. Aurreko igandean izan zen, azaroaren 27an, Villabonako plazan.

Luzean taldekoekin lehiatu ziren. Donibane Lohitzunekoak nagusitu ziren; 13-4 irabazi zieten zubietarrei. Zubietarrak beraz, iaz bezala, Endika Abril Errebote Txapelketako txapeldunorde ditugu. Zorionak!

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAĞUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
eraikuntzak-OBRAK-ERREFORMAK

ETXEBIZITZA

Salgai

Usurbilgo udalak etxebizitza bat jartzen du enkantean. Gubxieneko lizitazioa: 106.323 euro. Informazio gehiagorako: 94 337 19 51 edo kon-tratazioa@usurbil.eus

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, sarrera zabala, komun bat. Eguzkitsua, epela. Gela guztiak kanpoaldera, leihoarekin. Fatxada berritua, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

Pisua salgai, Puntapax 4 behean. 43 metro². Sukaldea, komun, 3 gela. Gela guztiak leihoekin. Aparkaleku pribatuarekin. 120.000 euro. 637 902 096

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 eta 56) eta garajea 50m² eta terraza 9m². Igogailua, fatxada berritua. Oso argitsua, bista onak. 679002101

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trasteleku. Dena kanpoaldera. 605 707 642.

78m² pisua Atxegalden. 4 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, balkoi luzea, trasteroa. Igogailua. Eguzkitsua. 215.000 euro. 656742207

BOE-ko 79m² etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukaldea... Dena kanpoaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trasteleku. 629631838

2 gela, komun, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komun, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiaigan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m². Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekileku,

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

egongela, 2 logela eta komun. Komun salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, auktura ezin hobea. Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Alokairuan

Pisu bat alokairuan Santuenean. 2 logela, sukaldea, egongela, komun. Kapritxo jarria. Animaliak ez dira onartzen. 667 680 236.

Alokatutako etxe baten bila nabil. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea, egongela, balkoi luzea, trasteroa. Igogailua. Eguzkitsua. 215.000 euro. 656742207

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 7866.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua

izan behar du. Tel. 665 319 105.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxeo karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 ziilind. 6.400 km, 15 urte inguru. Kaxkoan ahal bada. Txakurra dauka. 665 319 105.

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405.

Galtzaragainako garaje marra salgai. 20.000 euro. 687348223

Garaje itxia salgai, 38 m karratuko, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Suzuki Vitara salgai. Diesela. 1998. urtekoa. Korrea aldatu berria. 630 490 844.

Garaje itxia alokatzen dut, 20 metro², Kale Nagusia 22an. 618860270.

Garaje bat saltzen dut Erdiko-kalea, 10 zenbakian. 2 kotxe-erentzat. 48.000 euro. 699 720 940

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro,

Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsua. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxeerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekabiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadrokoak Santuenea 17. 615149900.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Pertsona euskaldun bat, arduratsua behar da pertsona helduak zaintzeko. Maltgutatsua. Tel. 607 233 255.

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Etxeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxeko zerbitzurako prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketan, jateke batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Paperekin egunean. Tel. 667 983 617.

Mutil gazte euskalduna DBHko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Ingeniaritza kimikoan graduatua, ingeles maila altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan

edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati eta Ane bakarkako partikularrak, arreta hizkuntzen sakontzea eta beste zenbait lanketa eskaintzen ditugu. Pedagogia eta beste hainbat ikasketa. Deitu edo bidali mezua: 617 684 523 / 680 160 278.

Emakume euskalduna eskaintzen da, astean bi edo hiru egunetan garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsalde, irailatik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaian baratzaiko lanak egiteko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo ospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 631 224 621

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketa lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketa lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel. 673 256 566.

Neska arduratsua bat eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Libre edozein momentutan hasteko moduan. 629 110 310.

Etxez etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzaile titularekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko.



Zorionak Maren!

Abenduaren 4an gure etxeko txikiak 3 urte egingo ditu eta danok ospatuko dugu. Txokolatzeko muxu bat etxekoan partez.



Zorionak Uxue!

Dagoeneko bederatzi urte bete dituzu. Segi horrela hazten eta hezten. Maite zaitugun guztion aldetik, besarkada!

631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. 619 355 819

Neska bat lan bila dabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta garbiketari. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehala lanean hasiko nintzateke. Tel. 632 797 416.

Senar-emazte gazte bat, lan bila dabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziarekin. Tel. 631 916 262 / 631 882 360.

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 916 262.

Lan bila nabil Usurbilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 882 360. Esperientzia zabala duen emakumea eskaintzen da haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660 041 361

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekuan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketari lanak egiten, jatebeteen batean harraskako garbiketari egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko.

Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldetan, garbiketari. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziarekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziarekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna

eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel. 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

BESTELAKOAK

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilita) eta enkortxadora

salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosiko nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 1,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2 - 3 urteko ume batentzat. Arroxa. Tel. 646 305 658.

Katakumeak oparitzen ditut. Baserrian ohituak. Tel. 610 375 595.

Txokoalden, San Esteban gora aldera igotzen, Mugi txartel bat aurkitu da. Izena: Jose Maria Otaegui Mugica. Udaltzainetan dago, eta pasa handik bila.

Puntuzko txaketa beige bat galdu zen uztailaren amaieran, anbulategi erdigune inguruan. NOAUA/Ira ekarri mesedez.

Abuztuan Usurbilgo Udaltzaingora haurrentzako botika eta higienarako produktuz betetako laranja koloreko nezeser edo bo-

tikin bat entregatu dute. Galdu duenak Udaltzaingoan galde dezala.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikako egokia) 627355126.

Maiatzaren 26an, 17:00ak aldera Oiaro Kiroldegian Golf gris auto bati kolpe txiki bat eman nion. Ohar bat utzi nion. Zurea bada jarri nirekin kontaktuan; 635 71 35 97.

Katuak oparitzen ditugu Donostia elkartean. 633 273 747 / 605 730 115

Nort Face markako eta urdin turkesa koloreko haur forro polarr bat galdu da. Aurkitu baduzu deitu 678 084 020.

Mobilhome bat alokatzen dugu Landetan uztailako bigarren hamabostaldian, uztailaren 17tik 31ra. Aste bakarrerako edo hamabostaldirako alokatzeko aukera. 660 057 667

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. Telefono zenbakia: 608 703 669

Legorretako babarruna salgai. 10 eurotan kiloa. 657 714 355

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

3 plazako eta 2 plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzekin. Egoera onean, 500 euro negozio-garri. usurbil72@hotmail.es

Hemengo urra erosiko nuke. 634 409 888.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. 688 888 176. Pablo.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Asteleheneretik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epategia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiaro Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 1	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Ostirala 2	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Larunbata 3	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Igandea 4	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Astelehena 5	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Asteartea 6	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola 9. Lasarte
Asteazkena 7	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Abenduak 1 - abenduak 11

Osteguna 8	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Ostirala 9	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Larunbata 10	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Igandea 11	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
URRUTIA YURREBASO, MAITANE
Etxeberri auzoa 1. Florida auzoa, Hernani
943 55 77 38 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda abendua

02 ostirala

■ **MartxanGo Dantza eta "Irri par tsou"**
Aginagan. 18:30ean MartxanGo Dantza, Aginagako ludotekan. 22:00etan "Irri par tsou" Aginagako ludotekan.

03 larunbata

■ **Euskararen Eguna.** 18:00etan jaialdia Mikel Laboa plazan. Antolatzaileak: herriko artixak.

04 igandea

■ **Haurrentzako zinea, "Robotak".**
 17:00etan Sutegiko auditorioan. Sarrerak egunean bertan, 3 eurotan. Nori zuzendua: 5-12 urte artekoentzat.

Euskararen Eguna, ospakizun iturri

Herriko artixen taldeak antolatutako jaialdia eta ikasleen kantaldiak iragarri dituzte, abenduaren 3an oroituko dugun egunaren bueltarako. Usurbilgo Udaleko udalbatzak asteartean eginiko osoko bilkuran, Euskararen Eguna loturiko adierazpena ere onartzekoak ziren. Xehetasunak, datorren astekarian.

Sortzaileen jaialdia, ikasleen kantaldiak Abenduak 3, larunbata

■ 18:00 Herriko artixen kultur jaialdia Mikel Laboa plazan: "Euskararen Eguna eta Ez dok Amairuren 50. urteurrena ospatze aldera, herriko artixen kultur jaialdia antolatu dute. Musika, dantza, ikus-entzunezkoak, olerkiak, antzerkia, kantua... izango dira gerturatzen direnen gozamenerako". Egunotan antolatu duten "Euskarari zein esaldi eskainiko zenioke?" lehiaketako esaldi gustukoena hautatuko dute. Antolatzaileak: herriko artixak.



Udarregi, Aginaga eta Zubietako ikastetxeetan abenduaren 5ean ospatuko dute Euskararen Eguna.

Abenduak 5, astelehena

■ 11:45-12:15 Udarregi Ikastolako ikasleak eta Aginagako ikastetxeak frontoian elkartuko dira euskal abestiak kantatzera.
 ■ 14:45-16:15 Udarregiko talde bat (LH2. maila) Zubietara joango da bertako Eskolakoekin jaia ospatzera.
 ■ 16:15-16:30 HH eta LHko 1. ziklokoek gurasoei abestuko diete. Antolatzaileak: herriko ikastetxeak.

20. Korrika laguntzeko deia

Euskararen aldeko lasterketa gu guztion laguntzaren beharrean da. Martxoaren 30ean Otxandion abiatu eta apirilaren 9an Iruñean amaituko den 20. Korrikaren materiala salgai dute jada Etumeta AEK eus-

kaltégian; sudaderak, kamisetak, lepokoak, agendak, giltzarriak... Astelehenetik ostiralerara, 09:00-12:00 artean edo 16:00-19:30 artean euskaltegira gerturatzen bazarete eskura dezakezue materiala.

Datozenak

"Gutik Zura" filma, abenduaren 11n Sutegin

Jon Maiak zuzenduriko ikus-entzunezkoaren "helburu nagusia bazoaren, zuraren eta euskal gizartearen arteko harremanak izan duten, gaur egun duten eta izango duten balioa gizarteratzea da".

Dokumental honen bidez, "aintzinatetik etorkizunerako bidaia egingo dugu lur hontako gizakiaren eta zuraren arteko harremana azalduz".

Donostiako Zinemaldian estreinatutako filma, Sutegin proiektatuko da abenduaren 11n 19:00etan, NOAUA! Kultur Elkartaren eskutik.

Sarrerak salgai

Proiektzioarako sarrerak aurrez eskuratu ahalko dituzue 6 eurotan, Bordatxon, Lizardin eta NOAUA!n. NOAUA!ko bazkideek, 4 eurotan erosi ahalko dituzte NOAUA!n bertan.



Jon Maiak zuzendu du dokumentala.

ELORZA

O BRAK ETA
 ERREFORMAK S. L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Iñaki
 Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
 ZORU BERO-EMALEA
 ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

600 024 825

ZALDIGAIN

ERREMENTARIA

• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
 • Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com

Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
 Fax: 943300045

San Tomas eguna ospatzeko **deialdia**



**Noaua!k baserritar guztiak
gonbidatu nahi ditu**

Herritarren sagardoa dastatzeko eta
babarrunak ikusteko aukera izango da, besteak beste.
Aurten ere lehiaketa bikaina izango dugu.



Abenduaren
igande goizez **18an**

Sagardo lehiaketa:

(Sagardotegiek ezin dute parte hartu lehiaketa honetan)

Sagardoa etxean egiten duenak herriko plazara ekar dezake herritarrek proba dezaten eta gainera, lehiaketan parte hartuko dute.

Partaide bakoitzak 8 botila ekarri beharko ditu, eta botila bakoitzeko 1,5€ ordainduko zaio.

Babarrun lehiaketa:

Ezaugarri hauek hartuko dira kontuan:

- **ITXURA:** osorik edo hautsita dagoen, zimurrak...
- **KOLOREA:** zenbat eta beltzagoa orduan eta hobeagoa.
- **BERDINTASUNA:** tamainaz, kolorez...elkarren berdinak izatea.
- **DIZDIRA:** berezko dizdira beste edozein produkturekin (olio, abrilantadore...) estali edo aldatua izaten bada lehiaketatik kanpo geratuko da.
- **GARBITASUNA:** partikula arrotzik ez izatea.

Informazioa eta epea:

- Babarrunak eta sagardoak Noaua!ra ekarri eta izena emateko datak:

**AZAROAREN 28tik ABENDUAREN 2ra
ABENDUAREN 12tik 15era (lauak barne)**


- Baldintzak eta gainontzeko zalantzak argitzeko deitu gure bulegora **(943 360 321)**

Sariak:

Babarrun eta Sagardo lehiaketetan, ondorengo sariak izango dira:

- **1go saria: 150€ + txapela**
- **2. saria: 90€ + kopa**
- **3. saria: 50€**

Parte hartzaile bakoitzak 1Kg babarrun ekarri behar du eta 12 € ordainduko zaio.



noaua

BAZKIDEEN TXOKOA



NOAUAko bazkide guztien artean zozketatuko
ditugu sari zoragarri hauek ABENDUAN

EGONALDIA ERRIOXAN



LOGROÑOKO HOTEL BATEAN
2 LAGUNENTZAKO BI GAU +
GOSARIA+ BODEGARA BISITA



NOAUA BIDAIAK

ATXEGA JATETXEAN AFARIA



2 LAGUNENTZAKO afaria
Atxega Jauregian



"GUTIK ZURA" PELIKULARAKO SARRERAK

ABENDUAK 11, IGANDEA



19:00 SUTEGIN



ABENDUAREN 11N, IGANDEA
"GUTIK ZURA" PELIKULA IKUSTEKO
SARRERA BIKOITZA



noaua! euskararen aterpe

orain bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan
parte hartzeko aukera izango duzu

(40€ urtean soilik) 943 360 321 / elkarte@noaua.eus